



AKTEA/04

**BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA
(2023-02-07)**

Batzarraren izaera:	Ohikoa
Deialdia	1. deialdia
Data:	2023-02-07 (Asteartea)
Lekua:	Irakaskintza kalea 14-16 (Gizarte eta Kultura Etxeko batzar gela)
Hasiera-ordua:	08:10
Amaiera-ordua:	08:15
Alkate-Presidentea:	PLATAS ARENAZA M. IDOYA
Batzordekideak:	LEIZAOLA ZULUETA MAITANE ZUMETA GARRO ALAZNE LEGARRETA ERKIAGA IBON ZUMETA GARRO KEPA
Bertaratu ez direnak:	ABAROA CANTUARIENSE ARITZ
Idazkaria:	LEJARRAGA URIARTE JURDANA



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000BAFFE00Z0N3Q1P3G1A3

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
07/02/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA -
09/02/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/02/2023
14:35:01

DOCUMENTO: 20230765950

Datea: 09/02/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E7000BAFFE00Z0N3Q1P3G1A3



Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2023-01-31 TGB (03)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Umea zaintzeko lanaldiaren murrizketa luzatzeko eskaria onartzea.
- 4.- Zaharren Egoitzan zerbitzua emateko BFAgaz 2023. urterako lankidetz hitzarmena sinatzea onartzea.
- 5.- Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 6.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta jarraian deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2023-01-31 TGB (03)

Bertaratutako batzarkideek 2023ko urtarrilaren 31ko 03/2023 akta irakurrita, aho batez onartzea erabaki dute.

2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

3.- UMEA ZAINTEZKO LANALDIAREN MURRIZKETA LUZATZEKO ESKARIA ONARTZEA.

Xedea

Umea zaintzeko lanaldiaren murrizketa. ***780**L NAN zenbakidun udal langileak 2023. urterako murrizketa luzatzeko egindako eskaria onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2019ko martxoaren 21eko Tokiko Gobernu Batzarrek ***780**L NAN

2



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000BAFFE00Z0N3Q1P3G1A3

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 07/02/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 09/02/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/02/2023 14:35:01

DOCUMENTO: 20230765950

Datea: 09/02/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E7000BAFFE00Z0N3Q1P3G1A3



zenbakidun udal langileak umea zaintzeko 2019. urterako eskatutako lanaldiaren murrizketa onartu zuen.

Bigarrena: 2019ko azaroaren 25ean ***780**L NAN zenbakidun udal langileak 2020. urterako, bere eguneroko lanaldian onartutako ordu bateko murrizketa luzatzeko eskaria egin du, lanaldiaren hasieran aplikatzeko.

Hirugarrena: Aurreko puntuan egindako eskaria 2019ko abenduaren 10eko Tokiko Gobernu Batzarrean onartu zitzaion.

Laugarrena: 2020ko apirilaren 29an lan murrizketa eteteko eskaria egin eta 2020ko maiatzeko 12ko Tokiko Gobernu Batzarrean onartu zitzaion.

Bosgarrena: 2020ko irailako 25ean bere eguneroko lanaldian ordu bateko murrizketa eskaria egin du, lanaldiaren hasieran aplikatzeko, eta 2020ko urriko 16ko Tokiko Gobernu Batzarrean onartu zitzaion.

Seigarrena: 2022ko urtarrilaren 27an semeak zaintzeko lanaldi murrizketa eskatzen du. Murrizketa ordu batekoa lanaldi bukaeran izatea eskatzen du, eta 2022ko otsaileko 15eko Tokiko Gobernu Batzarrean onartu zitzaion

Argudioak


Lehenengoa: Bermeoko Udaleko lan kontratudun lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren 56. artikulua honako hau ezartzen du:

56. artikulua.- Adin txikikoak edo ezindu fisikoak edo psikikoak zaintzeko lizentzia

1. Hamabi urte baino gutxiago dituen ume bat edo soldatadun jarduerarik egiten ez duen ezindu fisiko edo psikiko bat bere kargura daukan pertsonalak bere lanaldia heren batean edo erdian murrizteko aukera izango du, lanaldiaren hasieran edo amaieran, langile publikoak nahi duen moduan; langilearen ordainsariak zati proportzionalean murriztuko dira, antzinakotasunari dagokiona ere bai. Zortzi urte edo gutxiago dituen ume bat edo soldatadun jarduerarik egiten ez duen ezindu fisiko edo psikiko bat bere kargura daukanak bere lanaldia gutxienez 1/8 eta gehienez erdian murrizteko aukera izango du, ordainsaria zati proportzionalean murriztuz.

2. Legezko zaintza ez da bateragarria izango murrizten den ordutegiaren barruan egindako soldatapeko beste edozein jarduerarekin.

3. Behar bezala arrazoitutako salbuespenezko egoera jakin batzuk kenduta, lizentzi hau hamabi hilabeteko epeetan emango da; lizentzia emateko arrazoiak asko aldatuz gero, langile publikoak lanaldi murrizketa aldatu ahal izango du eta



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000BAFFE00Z0N3Q1P3G1A3

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 07/02/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 09/02/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/02/2023 14:35:01

DOCUMENTO: 20230765950

Fecha: 09/02/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidea:
Erregistro nagusia



lanera itzuli baino 15 egun lehenago, Erakundeari horren berri eman beharko dio.”

Bigarrena: Langileari dagokio ordutegia zehaztea, beti ere zerbitzuaren antolaketa-beharrizanak kontuan hartuz, zerbitzuak kalterik izan ez dezan.

Hirugarrena: Enplegatu publikoaren oinarrizko Estatutuaren testu bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako errege-dekretuaren 48. artikulua honako hau ezartzen du:

“h) por razones de guarda legal, cuando el funcionario tenga el cuidado directo de algun menor de doce años, de persona mayor que requiera especial dedicación o de una persona con discapacidad que no desarrolle actividad retribuida, tendrá derecho a la reducción de su jornada de trabajo, con la disminución de sus retribuciones que corresponda...”

Laugarrena: Halaber, emakume eta gizonezkoen berdintasunerako 3/2007 Legearen hamazortzigarren xedapen gehigarrian honako hau ezartzen da:

“g) El funcionario que, por razones de guarda legal, tenga a su cuidado directo de algun menor de doce años, persona mayor que requiera especial dedicación o a una persona con discapacidad que no desempeñe actividad retribuida, tendrá derecho a la disminución de su jornada de trabajo...”

Bosgarrena: Lan-merkatuaren erreformarako premiatasunezko neurriei buruzko 3/2012 Legearen Lehenengo xedapen gehigarriko 2. atalean xedatzen du:

*“5. Quien por razones de guarda legal tenga a su cuidado directo algun menor de ocho años o una persona con discapacidad que física, psíquica o sensorial, que no desempeñe una actividad retribuida, tendrá derecho a una reducción de la **jornada de trabajo diaria**, con la disminución proporcional del salario, entre, al menos un octavo y un máximo de la mitad de la duración de aquella...”*

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

BAKARRA: Bermeoko Udaleko lan kontratudun lan baldintzak arautzen dituen hitzarmeneko 56. artikuluan ezarritakoaren arabera, ***780**L NAN zenbakidun udal langileak bere eguneroko lanaldian ordu bat eta 10 minutuko murrizketa egindako eskaera onartzea, erabaki hau onartu eta hurrengo egunetik aurrera. Murrizketa hori lanaldiaren amaieran aplikatuko da, beti ere zerbitzuaren ordutegi-mugen barne.

4.- ZAHARREN EGOITZAN ZERBITZUA EMATEKO BFAGAZ 2023. URTERAKO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000BAFFE00Z0N3Q1P3G1A3

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 07/02/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 09/02/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/02/2023 14:35:01

DOCUMENTO: 20230765950

Fecha: 09/02/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



Xedea

BFAgaz besteen laguntza behar duten adinekoei Zaharren Egoitzan zerbitzua emateko 2023. urterako lankidetzat hitzarmena sinatzea onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bizkaiko Foru Aldunditik, besteren laguntza behar duten adinekoei egoitza zerbitzua emateko hitzarmena jaso da sinatzeko eta 52 plaza hitzartzea proposatzen dute.

Nº PLAZAS	PERIODO	TIPO DE PLAZAS	PREZIOA PLAZA/EGUNEK O (BEZ GABE) PRECIO PLAZA/DÍA	EGUNA K DÍAS	OKUPAZI OA OCUPACI ÓN	PREZIOA GUZTIRA (BEZ GABE) PRECIO TOTAL
52	01/01/2023 a 30/04/2023	ORDINARIA S	95,37 €	120	100%	595.109,00 €
40	01/05/2023 a 31/12/2023	ORDINARIA S	95,37 €	245	100%	934.626,00€
12	01/05/2023 a 31/12/2023	UNIDADES DE CONVIVENCIA	102 €	245	100%	299.880,00€

Bigarrena: Gizarte Zerbitzuen mapak arautzen duenaren arabera, menpekotasun maila I-eko egoitza zerbitzuak udaletik eman behar dira, hau da; eguneko zentroa eta etxebizitza komunitarioa. Menpekotasun maila II eta III graduko bezeroen egoitza zentroak BFAren kompetentzia dira.

Hirugarrena: Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Saileko zuzendariak, hitzarmenaren Justifikatze Memoria igorri zuen 2023ko urtarrilaren 17an.

Laugarrena: Bermeoko Udaleko Idazkaritza Saileko AOTk txosten juridikoa eman zuen 2023ko urtarrilaren 23an.

Bosgarrena: Bermeoko Udaleko Kontuhartzaileak fiskalizazio txostena eman zuen 2023ko urtarrilaren 25ean.

Argudioak

Bakarra: Menpekotasun maila II eta III graduko bezeroen egoitza zentroak BFAren kompetentzia dira, eta BFAk proposatutako hitzarmenak ez du estaltzen BFARI dagokion kompetentzia. Baina zerbitzuak egoileen eskubide subjektiboak estaltzen dituen heinean, ezin da zerbitzua bertan behera itxi, egokia den eskumen eskualdaketa gauzatu arte.



Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: BFAgaz besteen laguntza behar duten adinekoei Zaharren Egoitzan zerbitzua emateko 2023. urterako lankidetzaren hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA: Interesdunei erabaki hau jakinaraztea.

5.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRIEMOTEA.

Ez da ezer adierazi.

6.- ESKARIETA ITAUNAK.

Ez da eskaerarik ezta itaunik egin.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitaturako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidaturakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

Orrri oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000BAFFE00Z0N3Q1P3G1A3

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 07/02/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 09/02/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/02/2023 14:35:01

DOCUMENTO: 20230765950

Datea: 09/02/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E7000BAFFE00Z0N3Q1P3G1A3

